

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko irailak 19 • 1366 zenbakia

EUSKARAZKO TANTAK ZIENTZIAZ BUSTITZEKO

**PROGRESIBOEN
HILABETEA**

2MÓ 199€

batzuk eguzkitakoak
izan daitezke

Kontsumitzaile optikoen kanpamenduen eragileak.

MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua

www.multiópticas.com



MULTIÓPTICAS

EIBARKO DENDA BERRITU DUGU: instalazio teknologikoagoa, hobeto hornituagoa eta erosoagoa daukagu, zerbitzu eta produkturik onena eskeintzeko. Optika erreferentea gara 40 urte baino gehiago zure ondoan.



MULTIOPTICAS EIBARren azken teknologia bisuala. **VISION R800** aparatu aurreratu eta berritzaileenari esker, hauxe lortzen dugu:

- Graduazio zehatzak.
- Kristal likidoari esker ikusmen azterketa azkarrena.
- Ikusmen-neke txikiagoa izatea azterketan zehar.
- Paziente bakoitzaren ikusmenari ahalik eta potentzial handiena ateratzea.



2X199€

**mó betaurreko
progresiboak**

(batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

**BISITA GAITZAZU ETA IKUSMEN
AZTERKETA OSOA EGINGO DIZUGU DOAN**

Multiópticas Eibar
Bidebarrieta Kalea, 2
943 20 05 22



Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Pello Berrizbeitia Trail eta Mountain Running Munduko Txapelketan arituko da hilaren 27an. Korrikalari eibartarrak Long Trail proba lehiatuko du Espainiako selekzioarekin, maiatzean Domusa Teknik 40 MLK lasterketan bigarren gelditu eta mundialerako txartela lortu ondoren.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Irune

Jaio, Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Irune Jaio

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Irati Alvarez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



SEPEren itxiera Eibarren: publikoa abandonatzearen adibidea

Azken hilabeteetan, Eibarko biztanleek SEPEren itxiera bizi dute, giza baliabide faltagatik. Langabeziagatik presazioak eta enplegu-politikak kudeatzen dituen erakundea itxeak zalandza larriak sortzen ditu sistema publikoak herriarren eskubide sozialekin duen konpromisoari buruz.

Itxiera hau ez da kasu isolatu bat, azken urteetan gartzen doan tendentziaren parte da: publikoa dena interes pribatuen alde poliki-poliki ezabatzea. Eibarko SEPEa, itxieraren aurretik gai zen langabezian zeuden milaka pertsonari babesa emateko, eta Eibar, langabezia handiko herri industrial izanik, bereziki kaltetua da. Egoera hau arduragabekeria instituzionalaren adierazgarri da, herritarak babesik gabe utziz.

Gaur egun, enplegu-politikak gero eta gehiago bideratzen dira pribatizaziora, eta horrek lan-prekarietatea eta gizartearen desberdintasunak areagotzen ditu. SEPE itxeak erakusten du administrazioek ez dutela beren erantzukizuna betetzen, eta ongizate-sistema ahultzen ari dela Euskal Herrian zein Estatu osoan.

Horregatik, beharrezkoa da administrazioei konpromiso erreal eta eraginkorra eskatzea, arlo publikoa indartu eta herritarren eskubideak bermatzeko. Publikoa defendatzea eta pribatizazioaren joera baztertzea ezinbestekoa da demokraziaren eta gizarte-ongizatearen etorkizunerako. Ezin dugu onartu gure erakundeak eraitea gutxi batzuei bakarrik mesede egiteko asmoz. Gobernuaren lehenasunetan publikoak lehen tokia izateko unea da, eta behingoz alde batera uzteko guztiona izan beharko lukeena pribatizatzeko joera.

Eibarko LAB sindikatua

Hortik esanak



Ez dago arrazismotik edo klasismotik ihes egiten duen herririk. Eta esaldi hori ez da justifikazioa, errealitatea baizik, tamalez. Ez dut inor ezagutzen arrazista eta klasista ez denik. Beste gauza bat da identifikatzen jakitea noiz zeharkatzen diguten begirada eta pentsamendua mundua eta gizarte ulertzeko logika zahar horiek. Herentzia eta praktika sakon eta sustraitua da. Kolonialismoaren aztarna, kasu honetan, espainiarrena.

Laura Penagos, aktorea

Gauzak homogeneizatzen jotzen duen gizartean bizi gara, orokorrean, eta biolentzia estruktural handia sortzen da. Gure lehenbiziko pentsaera da denok garelako heterosexuak. Edota jende helduak ez duela sexurik praktikatzeko, ez duela desiorik. Hortaz, hor barruan sentitzen denaren esku dago esatea ez dela heterosexuala, edo 80 urte dituela eta sexua praktikatzeko duela. Orokortasun horretatik ateratzeko norberari esfortzua eskatzen dio, eta jasotzen diren input-en arabera, beldurra sentitu daiteke onartua ez izateko.

Jose Mari Goenaga, zine zuzendaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PINTXI → Apain apain eginda. “Hamen gure neskakua pintxi-pintxi eginda”.

PINTXULARI → Pintorea, margolaria. “Bata zan iraltserua eta bestia pintxularixa”.

PIOI → Ofizio gabeko behargina. Gaztelerazko, ‘peón’. “Gitxien pagautako biharra, pioiarena”.

1971-72

Arrate hotela
zabaldu berri

Jasotzen amaitu berri zegoela, 1968ko urriaren 12an bat-batean eraitsi zen bederatz pisuko eraikina. Bi urte eta hiru hilabetera inauguratu zuten Arrate hotela, 1971ko urtarrilean. Lana gogotik egin zuten, eraisketaren ondoren hondakin-pilaketa handia zegoelako; alboko etxeetako 3. pisuaren pareko altuerara ailegatzen ziren hondakinak.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 20
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 22
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 23
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 24
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 25
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 26
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Ritxi Iregui Alfaro. 63 urte. 2025-09-10.
- Javier Agirre Manzanedo. 72 urte. 2025-09-11.
- Jesus Arakistain Makazaga. 82 urte. 2025-09-11.
- Roman Cobo Rozadilla. 92 urte. 2025-09-12.
- Maria Angeles Nagore Viana. 76 urte. 2025-09-13.
- Jose Ramon Larrañaga Beledi. 88 urte. 2025-09-13.



Segurtasunerako Foroa Eibarren bildu da

Eibarren egin da Basque Segurtasun Foroaren Gipuzkoako lehen topaketa. Aste honetan egindako bilkuran segurtasunari eta etorkizuneko erronkei buruz aritu ziren Bingen Zupiria Segurtasuneko sailburua eta Eider Mendoza Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Debabarreneko 30 bat agenterekin batera. Horren harira, Eibarko EAJ-rentzat horrelako foroa sortzea “premiatzkoa” dela adierazi dute jeltzaleek. Eva Juez Eibarko UBBko presidentek esan duenez, “funtsezkoa da gure hiria nola dagoen aztertzea eta irtenbideak bilatzea”. Asmo horre-

kin sortu dute Foroa, hain zuzen. Asteleheneko topaketan Udaleko gobernu-taldeak, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak hartu zuten parte, besteak beste. Jeltzaleen arabera, garaje eta trastelekuetako ebasaketak, eta ostalaritzako saltoki eta lokaletan gertatzen diren lapurretak eta txikizioak dira kezagarrienak eibartarrentzat. Egoera hori kontrolatu eta eten egin behar dela uste dute: “Erakunde ezberdinetatik lan egitea eta lankidetzaz sustatzea funtsezkoak dira, herritarrak oro har kezkatzen dituen gai honetan aurreraz egin ahal izateko”.

SEPEren bulegoak zabalik jarraitzen duela argitu nahi izan du Eibarko alkateak

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikorako (SEPE) Eibarko bulegoa itxi dutela salatzen LAB sindikatuak egindako komunikatuaren harira, bertan diotena gezurtatu egin du Jon Iraola alkateak. Dioenez, argitaratutako informazioen berri izan eta, berehala, Marisol Garmendia Gubernuko ordezkariarekin jarri zen kontaktuan, eta “pertsonalki berretsi zion Eibarko SEPEko bulegoak zabalik jarraitzen duela”. Hori horrela, alkateak lasaitasun-mezua zabaldu nahi izan du: “Bulegoa ez dago itxita, eta herritarrak euren gestioak egitera joan daitezke, normaltasun osoz”. Bertako langileentzat errespetua ere eskatu du, “egiten duten lana oso garrantzitsua” dela gaineratuz.

Ostalaritzan eta elikaduran erabiltzeko bonu-txartelak salgai

Martitzenean hasi zen Ostalaritza eta Elikadura sektoreetarako bonu-txartelen kanpaina berria. Bonu-txartelek %20 (elikadura) eta %40 (ostalaritzan) arteko deskontuekin erosteko aukera ematen dute, kanpainari atxikitutako Eibarko establezimenduetan. 685 bonu atera dira guztira, eta Internet bidez erosi daitezke, www.erosieibarren.eus helbidean. Kontsumitzaileek 50 eta 100 euroko bi txartel-modaliteren artean aukeratu ahal izango dute, txartelak amaitu arte (bestela, erosteko azken eguna urriaren 2a izango da). Erositako txartelak, bestalde, urriaren 12ra arte erabili ahalko dira. Arduradunek azaldu dutenez, bonu-kopuru jakin bat egongo da salgai bai Eibarren bizi direnentzat, bai beste herri batzuetan bizi direnentzat, eta gehienez ere bi bonu eskuratu ahal izango dira NAN edo AIZ bakoitzeko. Informazio zehatzagoa izateko, aipatutako webgunera sartu.

Udalak bultzatutako kanpaina honek 15.000 euroko dirulaguntza jaso du, eta Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin lankidetzan antolatu da.

30NUEN KANPAINA BERRIA OSTALARITZA ETA ELIKADURA

OSTALARITZA
IROSI 30 €-REN TXARKE
10 € GASTATU

ELIKADURA
IROSI 40 €-REN TXARKE
50 € GASTATU



IRAILAREN 12RA AURRERA, SARTZEN
EROSI DAitezke txartelak




Erabilitako bizikleten azoka egingo da bihar goizean Untzagan

Udalak, Ingurumen Sailaren birtartez, Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egin du. “Mugikortasuna guztiontzat” da

aurtengo lema eta, horren harira, bigarren eskuko bizikleten azoka egingo da bihar, 10:00etatik 14:00etara Untzagan. Gainera,

Klub Deportiboak bizikletak konpontzeko tailerra ipiniko du Untzagan bertan, konponketa txikiak dohainik egiteko.

Arratsaldean bide-heziketa zir-kuitua eta ginkana egingo dira, haurrentzat. Eta irailaren 22an, Autorik Gabeko Eguna ospatzeko, Udalbusa doakoa izango da.



Elbarko zure etxebizitza berriak
SARIA DU!





Orain bakarrik, Arrate Homes-en zure etxebizitza berria eskuratuz gero,

▶ **3.000€-ko**
El Corte Inglés-eko opari-bartela
emango dizugu

TERMINO OROKOR JARDUKA

Obra berriko etxebizitzak:
Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua



900 11 00 22 • neinorhomes.com



‘Berrerabili eta berrasmatu’ tailerretarako aurrematrikula

Udaleko Ingurumen Sailak urriaren eta abenduaren artean egingo du ‘Berrerabili eta berrasmatu’ tailerren laugarren edizioa, herritarrak jasangarritasunarekin eta kontsumo arduratsuen inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin. Tailerretan parte hartzen dutenek eguneroko objektuak eta materialak konpontzen, berrerabiltzen, birziklatzen eta berrasmatzen ikasiko dute, horien erabilera luzatzeko eta hondakin-kopurua murrizteko. “Horrelako tailerrak ematen jarraitzea garrantzitsua da, hondakinak murrizteari eta produktuak berrerabiltzeari buruzko sentsibilizazioan laguntzen dute-eta”, azaldu du Eva Juez Garmendia Ingurumen Saileko buruak. Bere hitzetan, “helburua da herritarrak mobilizatzea eta kontsumo-ohitura jasangarriagoak hartzera animatzea, ingurumenean inpaktu txikiagoa izateko xedez”.

Aurten, guztira, hamar tailer eskainiko dituzte, herriko saltoki

eta entitate hauen laguntzarekin: El Taller de Manualidades, Baratzte, Adarabar, Kids&Party, Oinarritzko Lanbide Heziketako Udal Institutua, Eibarko Klub Deportivoa eta Koly Asociacion Solidaria. Besteak beste, etxeko oinarritzko konponketak, joskintza, bizikleta-konponketa, etxetresna elektriko txikien mantentzea, birziklatutako materialekin sortze-lanak, edo aprobetxamenduzko sukaldaritza modukoetan trebatu daiteke.

Tailerrek 8 eta 17 euro arteko prezioa izango dute, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren laguntza jasoko dute. Aurrematrikulak egiteko epea astelehenean (irailak 22) hasi eta urriaren 2ra arte egongo da zabalik. Interesdunek Pegoran edo Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioaren bidez izango dute izena emateko aukera aurten 4. edizioa biziko duen ekimenean.



Debabarreneko Esperientzia Eskolan izena emateko azken plazak

Ikasten Elkarteak antolatzen duen Debabarreneko Esperientzia Eskola 55 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta, bertan, formazioa eta parte-hartzea izango ditu ardatz. Ikasturtea urriaren 21ean hasiko da eta martitzen, eguazten eta eguen-goizetan izango dira klaseak. Izena emateko azken plazak geratzen dira. Matrikula epea zabalik dago urriaren 15era arte, Eibarko Pegoran. Informazio gehiago 695 788 936 telefonoan.



1958. urtean jaiotakoen kinto-jaia urriaren 9an

Urte horretan jaiotakoek aste baruruko egun bat aukeratu dute bazkaria egiteko: urriak 9, eguena. Argazkia egiteko Untzagan elkartuko dira, 13:00etan. Joan nahi duenak 80 euro sartu beharko ditu kontu honetan: ES 83 3035 0023 98 0231170648 (izen-abizenak argi azaldu).



Urriko azken egunean itxiko dituzte Unzaga Plaza hotelaren ateak

Unzaga Plaza hotelak urriaren 31n itxiko ditu ateak behin betiko. Badira aste batzuk Eibarren horri buruzko zurrumurruak entzuten hasi zirela, baina, hala ere, askorentzat sorpresa (eta ez atsegina) izan da azkenean egia izatea. Itxieraren arrazoia, diotenez, higiezinaren jabeak eta hotela kudeatzen zuen enpresak 2020ko azaroan sinatutako alokairu-kontratua ez berritzeko erabakia izan da. Erakinararen jabetza Madrilen dago, sei anai-arrebek osatzen dute eta,

esan dutenez, higieztina erosteko interesa duten bi erosle posibleekin negoziatzen ari dira jabeak. Hala ere, hotelaren kudeaketa bi eibartarren esku egon da azken urteetan, Unai Otxandiano eta Leire Uribecheberria senar-emazteek zuzendu dute eta. Unzaga Plaza ixteak 28 lanpostu galtzea dakar. Eta, horrekin batera, hotela ixteak 88 logela desagertzea ekarriko du berarekin eta, beraz, eskualdean dagoen lotarako eskaintza nabarmen murriztuko da.

Irailaren 27an Iruñean egingo den nazio ekitaldirako autobusa

Sortuk nazio ekitaldia egingo du irailaren 27an Iruñeko Anaitasuna pabilioian, “frankistek Txiki eta Otaegi fusilatu zituztela mende erdia beteko den egun berean”. Nazio ekitaldia 17:30ean hasiko da, eta Eibartik bertara joateko autobusa antolatu dute. Ego Gaintetik abiatuko da, 14:30ean, eta Guridi tabernan ipini duten zerrendan eman behar da izena, irailaren 24a baino lehen. Azaldu dutenez, “ekitaldira sartzeko ez da sarrerarik eta gonbidapenik behar, eta ez dago izena eman beharrik ere”.





ELGETAN





- Enpresako BISITAK edota langileentzako LANDETXXEA.
- GOSARIA barne, LOGELA zabalak eta izugarritzko BISTAK.
- Lasaitasuna eta diskrezioa.




B&B Eguzkitza

HARREMANETAN JARTZEKO:
688 615 600
www.eguzkitzaetxea.eus



TOMAS VOUILLOZ

USTE(L)KERIA

Oso biralak egin dira Maria Pombo-ren hitzak liburuen harira. Testuingurua emango dut norbaiti iritsi ez bazaio. Itzulpena nirea da. Ez da literala, baina zentzua hartzeko balio du. Dena den, hoberena bideoa bilatzea da itzulpenak eragin dezakeen zalantzak kentzeko:

Mariak objektu batzuekin apaintzen du bere etxeko pareta, liburutegi bat dirudiena. Norbaitek idazten dio politagoa legokeela pareta irakurritako liburuekin apainduta, tramankuluak baino ez daudela orain. Orduan, Maria bere erantzuna ematen hasten da, polemika aurreikusiz: "Banoa esatera... Uste dut badela ordua gainditzeko badagoela irakurtzea gustoko ez duen jendea, eta irakurtzen duzuenok, gainera, ez zarete hobeak irakurtzea gustoko duzelako".

"(...) Denok irakurri dugu noizbait, batzuei gustatzen zaie, eta beste batzuei ez. (...) Nire ahizpa ere influencerra da eta liburuak irensten ditu; batzuetan badirudi influencerrek orokorrean ez dugula irakurtzen. Beste ahizpa pilotua da eta uste dut ez duela liburu bat bera ere irakurri bere bizitza osoan. Interesekoak diren gauzak irakurtzen ditut, gai horren inguruan zehazki, baina ez dut liburu bat hartzen eta istorio bat irakurtzen ohean, eta ez da ezer gertatzen". Eta bukatzeko, ideia nagusia berriro, emandako argumentuen babesaz gozatuz: "Gainditu beharra dago: mundu guztiak ez du irakurtzea gustoko".

Titularrak puntuan dagoen melokotoi bat baino mamitsuagoak dira. Nork ez du nahiko hozkada literario bat eman? Ba kontuz, sagar ustela da.

Maria jende askoren bizipenaren bozeramaile da: irakurtzea gustoko ez izatearen konplexua kendu nahi du gainetik. Sagar ustela: bere aldarria liburuen kontra dela ulertzea. Ez. Bere aldarria pedantekiaren kontra da. Liburu batek ematen dituen aukeren artean, ez dago beste edonor baino hobeagoa egingo zaituenik. Zarena baino sakonagoa egin zaitzake, akaso. Dena den, liburua ez da bide bakarra.

Nekatuta ikusten dut, ez dimititzeko bezainbeste, Influencerren ospea eramateaz, azalekoa izatea eta funtsik gabekoa. Baina berak badaki sakontasuneko gauzak zenbat eta argi gutxiagorekin begiratu orduan eta intimoagoak direla. Begiek denbora asko behar dutela ohitzeko. Abiadurak, fokuek eta flashek bazter lanbrotsuetako bizitza uxatzen dutela, eta beste munstro batzuei deitu.

**"Gainditu
beharra dago:
mundu guztiak
ez du irakurtzea
gustoko"**

Udazkeneko jardueren eskaintza aurkeztu dute Andretxean

Urritik abendura bitarte Andretxean izango diren jardueren eskaintza liburuxka batean jaso dute. Jakinarazi dutenez, autodefentsa, literatura, belar-medikuntza, propiozepzioa eta emakumeen ahalduntzea bezalako ardatzak izango dira jardueren oinarri, "ikuspegi kritiko eta feminista batetik abiatuta". Aktibitate horietan izena emateko epea irailaren 23ra arte dago zabalik.

Andretxean datozen hilabeteetan izango den eskaintza aurkeztu dute aste honetan Elena Ibañez Berdintasun arloko buruak eta Jon Iraola alkateak. Liburuxka batean bildu dituzte egitarauaren nondik norakoak. Ezagutarazi dutenez, autodefentsa, literatura, belar-medikuntza eta emakumeen ahalduntzea ardatz dituzten tailerrak, ikastaroak eta literatura-saioak antolatu dituzte. Euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dira ekintza horiek.

Lehenengo saioa urriaren 4an hasiko da Arrateko aterpetxean, 'Emakumeak Inprobisatzen' izeneko ikastaroarekin. Ondoren, urrian eta abenduan zehar, beste hainbat tailer egingo dira Andretxean: 'Zoru pelbikoa indartzeko tailerra: Gure gorputzak ahalduntzen' (urriaren 8tik abenduaren 10era) edota 'Diafreoa: tentsio muskularrak askatuz eta gure bizipenak integratuz' (azaroaren 14tik abenduaren 19ra), besteak beste.

Andretxeak, gainera, 'Maistrak Liburutegia', genero eta feminismoan espezializatutako irakurketagunea ere eskainiko du, kontsulta eta aholkularitza zerbitzuekin. Ikasteko eta bakarka edo taldean lan egiteko espazioa ere bada.

Programazioak hitzaldi eta aurkezpenak ere jasotzen ditu: Jokin Azpiatzuk 'Masculinidades y feminismo' liburua aurkeztuko du urriaren 16an, eta abenduaren 11n, Uma Ulaziak Lisipe bildumako 'Euskal Herriko Greba Feministak' liburua aurkeztuko du. Azaroaren



Udazkeneko egitarauaren liburuxka. IRATI ALVAREZ

3tik abenduaren 31ra, berriz, 'Indarkeria matxisten aurkako memoria lekuak' erakusketa izango da ikusgai.

Modu berean, azaroaren 3tik abenduaren 31ra, 'Indarkeria matxisten aurkako memoria lekuak' erakusketa egongo da ikusgai. Azaroaren 11n, Mugarik Gabe elkarteak horrekin lotutako hitzaldia emango du: 'Voces de víctimas de violencias machistas: memoria, reparación y reconocimiento'.

Izen-ematea martitzenera arte

Ekintza horietan izena emateko epea irailaren 23ra arte dago zabalik, eta udalaren edo Andretxearen webguneetan eskuragarri dagoen online inprimaki bat bete beharko da. Gainera, jakinarazi dutenez, jarduera edo ikastaroek aurrera egiteko gutxienez zortzi lagunek eman beharko dute izena. Era berean, aurrematrikula kopuruak ezarritako gehiengoa gainditzen badu, parte-hartzaileak zozketa bidez hautatuko dira. Onartutako zerrenda udal-webgunean egongo da eskuragarri 2025eko irailaren 25etik aurrera.

Pentsiodunen ikasturte berria mobilizazioz gainezka dator

Pentsioak eta gutxieneko soldata parekatzeko pentsiodunek Gasteizen aurkeztu zuten Herri Ekimen Legegilea (HEL) Imanol Pradalesen gobernuak atzera bota duela eta, haserre bizian daude Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua osatzen dutenek. Hori dela eta, bihar (zapata, irailak 20) kalera irtengo dira, Herri Ekimen Legegilearen (HEL) aurkako “iruzurra eta zapalketa” salatzeko. Bilbon, Donostian eta Gasteizen egingo dira manifestazioak.



Astlehenean egin zen pentsio duin eta publikoen aldeko lehen elkarretaratzea Eibarren, udako etena eta gero, eta HELaren kontrako erabakiarengatik haserre daudela argi laga nahi izan zuten. Pentsiodunek diote ez dela bidezkoa hainbeste sindikatu, elkarte sozial eta milaka herritarrek babestu duten ekimen bat baztertzea, “are gehiago herritarren parte-hartzea bultzatzeko helburuarekin aurkeztu bada”.

Pentsiodunek gogorarazi dute HELa aurkezteko prozesua “luzea eta neketsua” dela, eta urtebete baino gehiagoz lan eta baliabide asko eskatu dituela: “HEL delakoa Legebiltzarrera eraman aurretik, herriz herri aritu ginen herritarren atxikimendu bila, eta boluntarioek egindako lanari esker 145.000 sinadura baino gehiago biltzea lortu genuen”.

Pentsiodunen Mugimendutik salatu dutenez, “orain esaten digute lan hori guztia alferrikakoa izan dela. Lakuako gobernuak esan du ekimen hori ez dela beharrezkoa, eta Eusko Jaurlaritzaren Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren kontra doala. Horregatik, Gasteizko Parlamentuak ez du onartuko ekimen hau aurrera eramatea, EAJk eta PSEk gehiengoa dutelako”.

HELari esker lortu nahi dutena hauxe da, funtsean: EAEan bizi eta errolatuta dauden 60 urtetik gorako



Astelehenean egin zuten uda osteko lehen kontzentrazioa Eibarko pentsiodunek. Hemendik aurrera betiko martxari helduko diote eta astelehenero elkartuko dira, 12:00etan Untzagan. SILBIA HERNANDEZA

pentsiodun guztiek gutxieneko soldataren pareko pentsioa jasoko dutela bermatzea, pentsio osagarri baten bidez. Azaldu dutenez, “2025ean gutxieneko soldata gordina 1.184 eurokoa izango da, 14 ordainsaritan banatuta”. Nabarmendu dutenez, euren proposamenak aurrekontuaren %1,4 baino gutxiago suposatzen du eta, beraz, “ez dela gastu handia izango”.

Astelehen eguerdian Untzagan azaldu zutenenez, “gainera datorkiguna gogorra izango da. Lotsabako hauek proposamen baten inguruan berba egitea ukatu digute eta, horren aurrean, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak mobilizazioak iragarri ditu”. Biharko mobilizazioekin batera, irailaren 25ean, Gasteizko Parlamentuan Politika Orokorreko Osoko Bilkura egingo den egunean, manifestazioa egingo dute, 12:00etan Bilbo plazatik abiatuta, eta bertara joateko autobusa antolatuko dute. Izena emateko Untzaga elkarretaratzeetara edo Guridi tabernara joan daiteke.

Urriaren 4ko manifestazioa prestatzeko bilera

Bestalde, urriko lehen egunean ospatzen den Adinekoen Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, Eibarren manifestazioa egingo da urriaren 4an, pertsona nagusien eskubideak aldarrikatzeko. Hainbat toki-erakundek deitu dute mobilizazioa: Agijupens Eibar, Eibarko Duintasuna, Eibarko Emakume Pentsionistak, Berrarmatzea Aurrakako Intsumisioa, Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez. Antolatzen ari diren mobilizazio horri buruzko informazioa emateko asmoarekin, datorren astean bilera irekia egingo dute: martitzenean (irailak 23) izango da, 19:00etan, Untzaga gizarte zentroan, eta gaiarekin arduratuta dauden herritar guztiak gonbidatuta daude.

**Irailaren 25ean
Gasteizko
Parlamentuan
bilkura egingo
dela aprobetxatuz,
manifestazioa egingo
dute eguerdian**



“Beste lan batzuetan aritu arren, inoiz ez dut nahi izan bakarriketei lotzen ninduen hari hori eten”

JON PLAZAOLA • Umoregilea eta aktorea



Joan den zapatuan Julen Axpek eman zion hasiera Komedia Fest umore jaialdiari eta bost bakarriketa gehiago izango ditugu hemendik azaroaren 22ra bitartean. Izen handiko umoregileak arituko dira Hezkuntza Esparruko eszenatokian eta datorren astean (irailaren 27an, 20:30ean) euskarazko ikuskizun bakarraz gozatzeko aukera izango dugu, Jon Plazaolaren eskutik. Sarreretan deskontua edukitzeko KF2025ETAKITTO kodea erabili dezakezue.

Telebistako umore saioetan eta telesail ospetsuetan ikusteaz gain, eszenatoki batean sarritan aritu da Jon Plazaola bakarriketari gisa. Oraingoan, Tu-Tum Platz! ikuskizuna dakarkigu, ia bi hamarkada atzera egin eta ‘stand up’ formatuko bakarriketa egiten hasi zeneko sasoiak gogoratzeko. Dioten bezala, ordubete izango dugu jakiteko ardo ona bezala urteen poderioz hobera egin duen ala ardo txarra bezala ozpindu egin den.

Martxan jarri berri den umore jaialdian arituko zara Eibarren. Zer iruditzen zaizu horrelako ekimenak sortzea?

Gutziz positiboa! Umoreak edozein herritan tartea izatea demaseko albiste da beti. Horrek esan nahi du jendeak umorea eskatzen duela, umorea gustatzen zaiola, barre egiteko beharra duela eta horretarako gaude gu, barre eginarazten saiatzeko behintzat. Nirea izango da euskarazko saio bakarra, baina ea hurrengo batean gehiago garen. Euskarazko umoregileak gero eta gehiago gara. Euskarazko bakarriketek badaukate nolabaiteko loraldi bat, jende asko dago eta horrek poza ematen dit.

Euskal umoregileen loraldia aipatu duzu eta horren

erakusgarri zen EITB-n Aitziber Garmendiak eta biok zenuten Barre Librea programa, baina gero, egunerokoan, nolako aukerak izaten dituzue ikuskizunak eskaini ahal izateko?

Nik neukez dut kexarik zentzu horretan. Lehen egindako lanek eta azken urteotan egindakoak bidea erraztu dit, nolabait esateko. Tu-Tum Platz!-ekin ehun funtziotik gora egin ditut bi urtetan, demaseko marka da, eta oso pozik nago horregatik, zoratzen. Udazkenean bakarriketa berria estreinatuko dut, AA Aita, beraz, segi dezala bolada onak. Barre Librea aipatuta, jende asko joan zen bertara lehen aldiz bere materiala estreinatzerara eta gero izen horiek karteletan ikusi ditut. Horrek ilusioa egiten dit. Gainera, Aitziber eta bioi ere eskerrak eman dizkigute aukera emateagatik. Aukerak eman behar zaizkio jendeari. Jendeak plazak sortu ditu, probaleku asko dago, gero eta toki gehiagotan programatzen da euskaraz, eta ea denek aukera duten show propioa sortzeko, ea zirkuitua sortzen den eta bertan denontzako tokia dagoen.

Sektorean bidea egiten hasi zinenean, aukera gehiago edo gutxiago zegoen?

Nire egoera orain aipatu ditudan pertsona horien antzekoa zen. Bazegoen zirkuitu bat eta izen handiko



Euskarazko bakarriketarien artean erreferentea da Jon Plazaola. ARNAITZ RUBIO

jendea zebilen bertan. Euskaraz oso-oso gutxi zegoen. Kike Amonarrizekin pare bat aldiz aritu nintzen eta beste aktore batzuekin saiakerak egon ziren, baina guztiz ezberdina zen. 18-20 urte nituenean edozein izkinatan jartzen ginen bakarriketak eskaintzera, edozein baldintzatan eta edozein egitarautan ahal zen moduan sartuta, bertsolariekin batera. Esperientzia horiek guztiek nire nortasuna eraiki dute eta oso positiboak izan dira. Atzera begira, barre egiten dut eta ilusio handiz gogoratzen ditut sasoi horiek. Matxetea hartu eta bidea egitea tokatu zitzaigun. Sasoi hartan egindako lanak beste batzuei bidea erraztu edo erakutsi badie, demasa da.

Erreferentea zara askorentzat, baina zein erreferente zenituen zuk?

Euskarazko umoregileen artean Kike Amonarriz zen erreferentea. Txiskola eta horrelako programak ikusten hazi ginen, Kikek egindako bakarriketa saiakerak ikusi nituen eta bidea zegoela ikusi nuen. Euskarazko fikzioan zebiltzan denak izan ziren erreferente: Ane Gabarain, Elena Irureta, Jose Ramon Soroiz... Euskarazko fikzio asko genuen, marrazki bizidunak euskaraz

kontsumitzen genituen eta hori guztia eraikitzen jarraitu behar dugu beste batzuek erreferente euskaldunak izan ditzaten. Beste mota batzuetako erreferenteak ere izan ditugu. Sasoi hartan, batez ere, telebista nazionaletik jasotzen genituenak: Gila, Eugenio, Faemino y Cansado... Orduan, ikusten genuen posible zela eurek egiten zutena gure hizkuntzan egitea.

Aktore lanetan urteak eman ondoren, Tu-Tum Platz! ikuskizunarekin bakarriketara itzuli zinen. Falta igartzen zenuen?

Bakarriketetan, izenak erakusten duen moduan, bakarrik zaude publikoaren aurrean eta horrek bestelako adrenalina edo ekaitz puntu bat ematen dizu. Behin hori sentituta zaila da barrutik grina hori kentzea. Beste lan batzuetan aritu arren, inoiz ez dut nahi izan bakarriketei lotzen ninduen hari hori eten. Tu-Tum Platz!-era esperantza eta zalantza askorekin bueltatu nintzen. Izan ere, hainbeste urte eta gero bueltatzea, eta agian lehenengo aldiz horrelako show propio batekin... Ikusi nahi nuen ea sasoiaren nengoan, jendeak nola erantzuten zuen, eta tira, ikusi da balantzea positiboak izan dela.

‘Asteroideiak’ proiektua

Betidanik izan du jakin-mina zientziaren inguruan, baina Batxilergo garaian etorri zitzaion fisika ikasteko benetako gogoa Patxi Eguigureni. Gaur egun astrofisikaria da, eta ‘Asteroideiak’ proiektuan sartuta dago buru-belarri. Zientzia-dibulgazioa euskaraz egitea beharrezkoa dela uste du Eguigurenek, herritarrak (gehienbat gazteak) zientziara gerturatu daitezen.

Graduko ikasketetan, hasieran, Medikuntzaren bidea hartzekotan egon bazen ere, azkenean Fisikaren alde egin zuen Patxi Eguiguren gazte eibartarrak. Astrofisikarekin maitemindu zen graduari, baina Euskal Herrian ikasketa horiekin jarraitzerik ez zuela ikusita, kanpora jo zuen. Gauregun, berriz, Eibarren bizi bada ere, badaki ez dela erraza bere espezialitatearekin loturiko lanpostua topatzea: “Zeru oso garbiak behar dira, eta hemen ez dugu horrelakorik”, azaldu du.

Ofizioa afizio ere izanik, euskara eta zientzia batzen dituen proiektu batean dabil lanean: ‘Asteroideiak’ zientzia-dibulgazioa euskaraz egitea xede duen proiektuan, hain zuzen. Hamar kidek osatzen dute proiektua, eta izen bereko webgunean astronomia, fisika eta hainbat arlotako artikulua argitaratzen dituzte.

Hasieratik gogotsu jardun du Eguigurenek proiektuarekiko: “Zientzia ulertzen dugunon eta gainerako herritarren artean lotura bat egiteko modu bat da dibulgazioa. Zientziarekin loturiko gai zailak modu errazean azaltzea oso interesgarria iruditzen zait”.

Astrologoak azaldu digunez, proiektua sortzea bi kideri otu zitzaion. “Haien lan munduan erabiltzen zen hizkuntza nagusia ingelesa zela ikusi zuten, batez ere artikulua irakurtzerako edo idazterako orduan. Eta ingelesa ez denean, lankideen artean gaztelerara jotzen da” dio Eguigurenek.

Atari digitalean ere argi azaltzen dute euren beharra: “Proiektu honen parte garenon ehuneko handi batek, ez denok, ingelesez eta hizkera zientifikoa baliatuz komunikatu behar dugu beti gure lan esparruetan. Horretarako nahiko arrazoi badaude ere, komunika-

zio formalak ez du tokirik uzten libre idazteko; ez dago metaforarik, analogiarik, hiperbolerik... Espresio literario edo poetiko oro zehaztasunaren izenean alboratzen da. Eta, noizbehinka, askatasun literario pixka bat faltan botatzen dugu”.

Izena eta lehen urratsak

“Pare bat asteko ideia zaparradan sortu genuen izena”, dio irribarrez. “Astero artikulua bat idazteko asmoa genuenez, ‘astero ideia bat’ kontzeptua asteroide hitzarekin lotu genuen, eta hortik jaio zen izena”.

Izenarekin batera, bileretan beste hainbat puntu erabaki behar izan zituzten. “Hasiera ez zen erraza izan. Bazeuden egin nahi genituen puntu asko: wegbune bat sortu nahi genuen, Instagram kontua ere bai, artikuluen zailtasun maila, teknizismo maila... Gauza asko izan behar genituen kontuan”.





Patxi Eguiguren astrofisikari eibartarrak ...eta kitto!-rekin elkarlanean jardungo du zientzia-dibulgazioan. IRATIALVAREZ

Hasierako helburua astero artikululu bat plazaratzea zen, baina denborak erakutsi zien beti ezin dela: “Hasieran bete genuen, baina zaila egiten zaigu. Izan ere, guk lan hau afizioz egiten dugu. Partaide bakoitzak bere lana du eta, beraz, gure lanetik kanpo sortzen ditugu artikululuak. Gainera, taldekide bakoitza munduko txoko batean bizi da. Uda aurretik lortu genuen astero artikululu bat argitaratzea. Baina gero, denbora kontua dela-eta, iruditu zitzaigun bi astetik behin ateratzea hobe zela guretzat. Gainera, kalitatezko artikululuak atera nahi genituen”.

Taldeko hamar kideak arduratzten dira idazketa eta zuzenketa lanez: “Bi hilabetetik behin tokatzen zaigu artikululu egitea. Testuak asetebe lehenago partekatzen ditugu, zuzenketa egiteko, bai euskarari dagokionez, bai teknizismoari dagokionez ere”.

Eguigurenek ezagutarazi duenez, artikululuak gaiak bakoitzaren

>>>Anbizio handirik gabe jaio zen proiektua, zientziarekiko afizio eta grinez

>>> Gazteok zientzia-dibulgazioa euskaraz egin dezakegula erakutsi nahi dugu

espezialitatearen arabera dira: “Azken finean denok gatz fisika, matematika edo ingeniariaren alorretatik. Bakoitzak bere espezialitate du eta gaiak horren inguruan doaz. Niri astronomia interesatzen bazait astronomiaz idatziko dut, beste batzuek fisika teorikoaren inguruan, edo erlatibitatearen teoriaren inguruan, edota biofisikaren inguruan idatziko dute”.

Zientzia-dibulgazioa euskaraz egin behar diren inguruan galde-tuta, Eguigurenek argi dio aletxo bat ematea beharrezkoa dela: “Ba-

daude Elhuyar edo Aranzadi bezalako erreferenteak, baina guk gure ikuspegia eta gure intereseko gaiak jorratu nahi genituen, gure kabuz”. Modu berean, Eguigurenentzat garrantzitsua da gazteek herriko erreferenteak edukitzea: “Ni eibartarra naiz, eta beste gazte eibartar batek ikusiko balu gaztea den norbait euskaraz dibulgazio zientifikoa egiten, agian, zientziara hurbilduko litzateke, eta gainera, euskaraz. Horrek balio handia du”.

Jasotako feedback-a orokorrean positiboa izan da, baina kritikak ere



Astronomo talde bat teleskopio amateurrak erabiltzen Rancho Mirage Behatokian.

jaso dituzte: “Egia da guk ez dugula inoiz dibulgatu eta ikasten gaude. Testuak oso luzeak edo oso teknikoak direla esan izan digute. Horrek hausnarketara eraman gaitu eta dibulgazio estiloa lantzen ari gara”. Bestetik, webgunearekin loturik, migrazio fasean daudela jakinarazi digu: “Azken asteotan albisteekin bitartez konturatu gara Wix plataformak Israeleko armadarekin lotura duela. Kasualitatez, guk plataforma hori erabili dugu webgunea sortzeko. Orduan, momentu honetan migrazio prozesuan gaude, uste dugulako garrantzitsua dela plataforma horri inolako babesik ez ematea. Beste alternatiba batzuk bilatzen gabiltza orain”.

Etorkizunaz

Proiektua “anbizio handirik gabe” jaio zela dio Eguigurenek. Afizioz eta grinez: “Guk nahi dugulako egiten dugu, zientziarekiko sekulako afizioa dugulako, eta nahi duguna-

ren inguruan idazteko gogoia dugulako. Gainera, gure lanekin uztartzea erronka dela ikusita, beste salto bat ematea zaila izan daiteke. Beraz, gure asmoa (oraingoz) artikulak idazten jarraitzea eta beste zientzialariak gure plataformara gonbidatzea da”.

Gazteak zientziara gerturatzearen beharra azpimarratu du Eguigurenek: “Nik uste dut zientzia gauzak ulertzeko eta zalantzan jartzeko modu oso polita dela. Zientziak pentsatzeko modu bat ematen dizu. Ez zientzia arloan bakarrik, egunerokotasunean ere bai. Pixka bat arrazionala izateko eta kritikotasun maila bat izateko. Gazteak zientziara gerturatzerantz animatuko nituzke. Uste dut zientzia geroz eta presenteago dagoen une honetan, ezinbestekoa dela gazteek (oso formatuta dauden gazteak) euren alea ematea gizarteari”.

Eta eibartarrei, azken mezua: “Asteroideiak.eus irakurtzera gon-

bidatuko nituzke, zientzia ahal den neurrian bultzatzeko. Eta noski, euskaraz baldin bada, askoz ere hobeto”.

asteroideiak.eus



“Herria maite dugunez, badakigu Ipuruan jotzea oso gauza polita izango dela”

MIKEL GOROSABEL • EH SUKARRA



Hilaren 27an (zapatua) ospatuko dira Ipuruako jaiak. Musika eskaintzaren artean, EH Sukarra rock talde eibartarra izango da oholza gainean. Eibartik kanpo bizi bada ere, jaioterrira itzultzeko gogoz da Mikel Gorosabel ‘Norton’ talde burua..

Zer moduz zaude? Ipuruako jaietan jotzeko gogotsu?

Bai, nola ez! Eibarren jotzeko gogoia dugu beti, eta Ipuru moduko auzo batean are gehiago. Lotura handia dut auzo horrekin, txikitako bizipenak direla-eta.

Anekdotak ugari izango dituzu auzo horretan.

Bai, bai (barrez). Isasi 17an jaiotakoa naiz, baina guk Abontzan jolasten genuen. San Kristobal, Guardia Zibilaren kuartela eta etxe gorrien inguru horretan ibiltzen ginen. Gure parroikia umetan San Pio zen. Guardia Zibilarekin eta Astelena frontoiaren atzeko aldean, bien artean, aspaldi baserri bat eta aroztegi bat zeuden. Dena berdea zen, ez zeuden gaur egun dauden etxerik. Eibar zaharraren azken aztarnak izan ziren leku horiek. Inguru horretan hazi nintzen ni.

Ez da Ipuruan jotzen duzuen lehenengo aldia.

Etxe gorrietan behin jo genuela esango nuke. Orain dela urte asko izan zen hori.

Zer esanahi du zuentzat zuen herrian jotzeak?

Alde batetik ilusioa ematen digu, eta bestetik errespetua. Errespetua gure herria delako. Gainera, ez da berdina Arraten, Untzagan edo Ipuruan jotzea.

Leku bakoitzak bere argitasuna edo berezitasuna du: bere magia.

Hogeita hamar urtez ibili zarete oholza gainean. Asko ikasiko zenuten urte hauetan.

Hogeita hamar urte baino gehiago! (barreak). Ikasi? Noski. Urteen poderioz gauza batzuk irabazten dira eta beste batzuk, agian, galdu. Nik uste dut hor badagoela “ekilibrio” bat. Eta heldutasunak beti dakar bere alde ona: honaino iritsi garela eta hemen gaudela, musikaren bitartez nortzuk garen erakusteko gaitasuna dugula eta badakigula oso maitatuak garela. Herria maite dugunez, badakigu Ipuruan jotzea oso gauza polita izango dela.

Nola ikusten duzu Euskal Herriko panorama musikala?

Oso positiboki baloratzen dut. Uste dut musika originala Euskal Herrian oso bizirik dagoela. Bai rockean, bai beste hainbat estilotan. Jendearengara iristen diren proiektu potente berri asko baitaude: Marte Lasarte edo Ezpalak taldeak, adibidez. Pozgarriak dira Euskal Herrian estilo aldetik dugun aberasgarritasuna eta jendea erakartzeko dugun gaitasuna.



Euskal Herriko musika-industriari begira, ordea, ez dut iritzi bera. Globalizatuta eta beste dibisio batean dagoela uste dut. Negozioa besterik ez dute bilatzen, kulturaren kaltetan. Makrofestibalak dira horren erakusle, esaterako.

Aurrera begira, EH Sukarrak ba al du proiekturik eskuartean?

Bueno... ez naiz gezurretan aritzekoa, baina ezin dut ezer aurreratu. Hori bai, ez dakit zein formatutan egingo dugun. Gure aldetik, ez dugu diskorik aterako. Globalizazioaren aurrean, gu lasai ibiltzen gara, “kontrakorrientean”. Askok ez dakite gaur egun lanean eta taula gainean gabiltzala ere. Ezagutu eta maite gaituztenak gure gorabeheren jakitun dira. Bestalde, bagabiltza sukaldean. Tantaka-tantaka gauza onak egin nahi ditugu eta aurrerantzean izango duzue gure berri.

Ipuruan gertukoak, betikoak eta belaunaldi berriak elkartuko dira. Zer esango zenieke?

Bertara joateko erraztasuna dutela esango nieke eta animatu daitezela. Ez da Untzaga, baina bost minutura izango gaituzue (barreak). Leku txikiagoa edo jasoagoa izango da eta horrek beti ematen dio berotasuna.

“Uste dut musika originala Euskal Herrian oso bizirik dagoela”

“Ez dugu diskorik aterako. Bestalde, bagabiltza sukaldean. Izango duzue gure berri”

Hurrengo zapatuan ospatuko dugu ...eta kitto! Jaia

Aste honetan aurkeztu du euskara elkarteak datorren zapatuan, irailak 27, ospatuko duen ...eta kitto! Jaia. Ekaitz Juaristi Elkarteko presidenteak eta Anartz Mitxelena zuzendaritzakideak egin zuten aurkezpenean gogora ekarri zuten, “lehen Sagardo Eguna zena...eta kitto! Jaia bihurtu genuen iaz, euskara elkartearen gizarteratze kanpainarekin bat egiteko”. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egiten den jaiak 30 urte beteko ditu aurten eta, antolatzaileek azpimarratu dutenez, “inoiz baino lehenago ospatuko dugu, gainera”.

Izan ere, ohikoa baino astebete lehenago egingo da ...eta kitto! Jaia, Untzagan, eta azken urteetan bezala,



goiz eta arratsaldeko saioetan banatuko da: 12:00etatik 15:00etara eta 18:30etik 20:00etara. Eta, jaiak musika-rekin girotzeko, Latuna Bando txarangakoak arituko dira arratsaldean. Adierazi dutenez “jai egun euskalduna elkarrekin gozatuko dugu, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Aurten gure herriko komunitate euskaltzalea izango da protagonista nagusia. Gogoratu! Irailaren 27an, Untzaga plazan euskaraz dastatu, euskaraz gozatu!”.



Berbetan jaialdiarekin abiatuko dira mintzapraktikako programak

Irailak 23an, martitzena, urteroko Berbetan jaialdia hartuko du Untzagak harmailen aldean. 18:00etan hasita, ordubetez, musikaz eta giro onez beteko du plaza Disko Arima musika festak, eta tarte horretan ...eta kitto!-ren hiru programen inguruko informazioa ematen arituko dira elkarteko arduradunak. Egun horretatik aurrera, beraz, ofizialki hasiko dira martxan Berbetan egitasmoko programak: Berbetan mintzapraktikakoa batetik, astero eta giro informalean euskara praktikatzeko aukera ematen duena; bestetik Gurasoak Berbetan familia-giroa euskalduntzea helburua duena eta, azkenik, Ongietorri euskarara eta euskal kulturara hurbildu nahi dutenei eskainitakoa.



Barixakuak Jolasian ekimena hurrengo astean itzuliko da

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Barixakuak Jolasian ekimenak datorren barixakuan, irailak 26, hasiko du ikasturte berria. Txaltxa Zelai izango da lehena eta, ohiturari jarraituz, 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak antolatuko dira 17:00etatik 18:00etara. Hurrengo bi saioak urriak 3 (Torrekuako parkean) eta urriak 10ean (Urkizuko parkean) izango dira.

“Ez zitzaidan burutik ere pasatuko inoiz Munduko Txapelketa batean parte-hartuko nuenik”

PELLO BERRIZBEITIA • Korrikalaria



Maiatzean Azpeitiko Domusa Teknik 40 MLK ultra trailean bigarren postuan amaituta, Pello Berrizbeitiak hilaren 27an Canfrancen (Huesca) jokatu den Trail eta Mountain Running Munduko Txapelketan parte-hartzeko txartela eskuratu zuen. Korrikalari eibartarrak Long Trail proban jardungo du, 82 kilometroko ibilbidean 5.413 desnibela gaindituz.

A ita izan berri da Pello Berrizbeitia eta, Munduko Txapelketako parte-hartzea gehituta, emozio handiko asteak dihardute izaten berarentzat. Gozatzeko asmoarekin doa Canfrancera, inoiz ez baitzuen pentsatu horrelako lasterketa batean arituko zenik, baita anbizioarekin ere, 10 ordu ingurutan proba amaitu nahia du-eta.

Egun gutxi falta dira Munduko Txapelketarako. Zelan sentitzen zara?

Gogotsu. Urduri ere banago, Munduko Txapelketa delako, baina goatzera noa. Azkenean, bertan ego-tea saria da niretzat.

Nola egiten diozu aurre probari? Helbururik markatu duzu?

Horrelako distantzia luzeetan, postu jakin batean iristea baino, denbora baten barruan amaitzea jartzen dut helburu. Gainera, txapelketan egongo den maila ikusita... 58. postu inguruan nagoela ikusi dut ranking batean eta horren aurreko postu batean sailkatzea demasa izango litzateke. Beraz, 10 orduren bueltan ibiltzen banaiz, nahikoa.

Espainiako selekzioarekin lehiatuko duzu beste hainbat korrikalarirekin. Taldeko taktika edukiko duzue ala bakoitzak bere lasterketa egingo du?





Pello Berrizbeitia goatzeko asmoarekin joango da Canfranceko Munduko Txapelketara . EKHI BELAR

Bakoitzak berea egingo du. Bestalde, badago taldeko sailkapena ere eta taldeko hiru onenen denborak hartzen dira horretarako. Beraz, ahalik eta azkarren iritsi nahi dugu, baina bakoitzak bere lasterketa egingo du, bakarka irabazteak duelako garrantzi gehien.

Long Trail proban lehiatuko zara. Nolakoa izango da?

82 km izango dira, 5.413ko desnibelarekin... Gainera, Pirinioetako lurra gogorra da. Bidea ez da garbi ikusten, nahiko teknikoa da, 2.000 metrotik gora denbora dezente ibiliko gara... Egun gogorra izango da.

Horri aurre egiteko, zein izango da zure estrategia?

Aldi bitan ikusi dut ibilbide guztia. Lehenengo 40 kilometroetan lasai joatea komeni da. Ezagutzen ez duenak hasieran gehiegi sakatzen badu, ez da metara iritsiko. 40. kilometrora indarrarekin iritsi behar da eta hortik aurrera ikusiko dugu.

Lasterketan jatekoa eta edatekoa nola kudeatzen duzu?

Lasterketako jatekoarekin laguntzen didan nutrizionista bat daukat eta azkenengo hilabeteetan hori egon gara lantzen. Beraz, urduritasun kontuengatik ez bada, printzipioz tripetan ez nuke arazorik eduki behar.

“Distantzia luzeetan, denbora baten barruan amaitzea jartzen dut helburu. Kasu honetan, 10 orduen inguruan”

Lasterketa berezia izanda, modu berezian prestatu duzu? Espainiako selekzioak baliabide gehiago eskaini dizkizu?

Bere momentuan selekziokoek esan ziguten altuerako entrenamenduekin eta abar lagunduko zigutela, baina azkenengo astera arte ez dugu laguntzarik jaso. Orduan, beste lasterketa bat bezala prestatu dut. Beste helburu batekin, baina beste barik. Entrenamendu batzuk egin ditut horri begira, eta kitto.

Joan den astean kontzentratuta egon zineten, ezta?

Bai, selekzioko kideak Canfrancen egon gara ibilbidea ikusten, baina ez dugu besterik egin.

Zer moduzko esperientzia izan da goi-mailako beste korrikalari batzuekin elkarbizitzea?

BIDEOA



Askok ikasten da horrelako jendearekin. Eurak profesionalak dira eta ni ez, korrika egiteaz gain lana egiten dut, eta modu ezberdinean ikusten dut kirola. Ondo dago eurek lasterketak eta entrenamenduak nola planteatzen dituzten ikustea. Demaseko esperientzia izan da.

Ez zara profesionala, baina Munduko Txapelketarako sailkatu zara. Hasi zinenean horrelakorik pentsatzen zenuen?

Ezta gutxiago ere! Aurten ere ez nuen pentsatzen Munduko Txapelketan egongo nintzenik. Nire helburua beti da urtetik urtera hobetzea, urte batean lasterketa batean denbora bat egiten badut, hurrengoan hobetzea. Horregatik entrenatzen dut, gustatzen zaidalako, baina ez profesionala izateko. Gainera, uste dut horretarako berandu dela. Ez zitzaidan burutik ere pasatuko inoiz Munduko Txapelketa batean parte hartuko nuenik.

Lehen futbolean egiten zenuen. Nola pasa zinen korrika egitera?

Gipuzkoar askori gertatzen zaizen bezala, Behobia-Donostian izena eman eta hori prestatzen hasi zen dena. Lasterketa egin nuen, pikatu egin nintzen egindako

denborarekin eta abar, eta korrika egitera engantxatu nintzen. Bestalde, lagun batek mendian egiten zuen korrika eta probatu egin nuen. Behin probatuta, engantxatu egin nintzen. Gozatzeko egiten dut korrika. Mendian libre sentitzen zara. Sasoi batean zaudenean, asko gozatzen duzu mendian korrika egiten. Lehia gustatzen zait, noski, baina nagusitzen naizenean, nahiz eta lehiatzeko gai ez izan, korrika egiten jarraituko dut, kirola gustatzen zaidalako.

Gozatu gozatzen duzu, baina sufrimendua nola-koa izaten da?

Askotan gertatzen da lasterketa bat egin eta inoiz ere ez zarela bertara bueltatuko esatea, baina handik bi egunetara hurrengo urtean lasterketa hori noiz egingo den begiratzen hasten zara. Pixka bat masokistak gara, sufrimendua gustatzen zaigu.

Burua nolakoa den! Lasterketak oso luzeak direnean, nola kudeatzen dituzu buruko kontuak?

Hamar orduko lasterketetan krisi momentu bat edo bi egon ohi dira. Gero, bat-batean, gorputzak buelta ematen dio eta aurrera egiten duzu.

Gaur egun jende askok egiten du korrika mendian. Nola ikusten duzu fenomeno hori?

Batzuetan, lasterketa batean izena eman nahi duzu eta izen-ematea zabaltzen duten momentuan ez bazara apuntatzen, seguruenik kanpoan geratzen zara. Eta hori 400-500 lagunentzako tokia egoten dela! Lehen hori ez zen pasatzen. Hasi nintzenean, lasterketa baino hilabete lehenago apuntatzen zinen, lasai asko. Gainera, izen-emateen prezioak ere igo egin dituzte. Dena dela, errespetuz jokatzuz gero, mendian denontzako dago tokia.

“BERRIKUNTZA ETA BERRIKUNTZA” TAILERRAK

10-11-2025

1

KATALOGOA:

Leena emateko epea: irailak 22 - urriak 2

Aldiz nagusiak: Gehienez 5 tailer pertsonala.

Pagura edo: <https://formulariot.eibar.es/leena/berrikuntza-eta-berrikuntza-2025-02>

Onartuen zerrenda argitaratzeko eguna: urriak 6

Onartuak matrikula formalizatzeko epea: urriak 7 - urriak 14

-Matrikula inprimakia udalaren webgunean ezaragarri

-Matrikula Pagorako postontzian utzi (egutero, 7:30 - 21:30)

	Eleku emateko	Emateko eta bueltako
• ETXEO BARRIKOTZKO KONPONKETAK, ESTALDURAK ETA PINTURA: urriak 21-26, asteak 4, 11, 18, 25 / 17:30 - 19:30	8€	17€
• IRADI ZURRI BARRIKOTZKO KONPONKETAK: urriak 22 / 18:00 - 20:00		8€
• ETXEO BARRIKOTZKO KONPONKETAK, ITURGINTZA: urriak 23 eta 30, asteak 6, 13, 20 eta 27 / 17:30 - 19:30	8€	17€
• MARKINAZ NOLA JOSE HARRIKORTZAKO JOSEKINTZA: urriak 25 / 8n buelta: 18:00 - 18:00 eta 18:00 - 20:00		8€
• TAPUZATU ETA ESTREINATU ZAHARRIKOTZKO BARRIKOTZKO: asteak 8 / 10:30 - 13:00		8€
• ETXEO BARRIKOTZKO KONPONKETAK, ETXETRESNA ELEKTROKO TXIKIAK KONPONKETAK: asteak 12, 19 eta 26 / 17:30 - 19:30		8€
• LOREONTZI EDO ERABILERAK ANITZETAKO FOTE BAT SORTU BIRZIKLATUTAKO LATEKIN: asteak 15 / 11:00 - 13:00		8€
• COLLAGE ORIGINALAK SORTU BARRIKOTZKO AFANTZIKOTZKO: asteak 22 / 11:00 - 13:00		8€
• AFRIDETAMENDUAKO SUKALDAINTZA: GABONETAKO GOSAR- BRUNCHAK: asteak 2 / 17:30 - 20:30		8€
• BERRIKUNTZA ZURRI ONTZA ETA BERRIKUNTZA ZURRI KOSMETIKAKO PRODUKTUAK: asteak 10 / 18:00 - 20:30		5€



Pello Osoro eta Patri Amundarain garaile Simon Aldazabal lasterketan

Eguraldia lagun, egun zoragarria bizi izan zen domekan Simon Aldazabal lasterketaren 30. edizioan. 25'41"ko denborarekin, Pello Osoro izan zen lehena Arrateko helmugan eta Oier Etxeberria (26'55") eta Eneko Fernandez (27'24") izan zituen lagun podiumean. Emaku-

mezkoiei dagokienez, Patri Amundarain (35'38") izan zen lehena eta Maria Amundarain (42'23") bigarrena. Guztira 44 lagunek hartu zuten parte Eibarko Klub Deportiboak antolatzen duen lasterketan. Parte-hartzaile gehienak eibartarrak izan ziren.

1 PELLO OSORO	EIBAR	25'41"	1. MUTILA+TXULETA
2 OIER ETXEBERRIA	AZPEITIA	26'55"	2. MUTILA
3 ENEKO FERNANDEZ	EIBAR	27'24"	3. MUTILA
4 JULEN OLASOLA	ERMUA	27'40"	
5 TXOMAS OSORO	EIBAR	27'51"	1. EIBARTARRA
6 ALEX INZUETA	BERRIZ	28'17"	
7 AITOR BASTICA	EIBAR	28'22"	
8 ADER LUNARIZ	ERMUA	29'00"	1. HELDUA +42
9 IKER ARRILLAGA	ELGOIBAR	30'38"	
10 IKER ETXEBERRIA	EIBAR	30'51"	
11 HARITZ SORZABAL	DEBA	31'50"	1. HELDUA +50
12 ANDER EGURROLA	EIBAR	31'56"	
13 FARID EL IDRISSI	ERMUA	32'08"	
14 EDUARDO TALAN	EIBAR	32'11"	
15 JUAN ALDAY	EIBAR	32'37"	
16 MARCEL SANZ	EIBAR	32'40"	1. HELDUA +60
17 INAKI EGIZABAL	ELGETA	32'50"	
18 JUAN PLAZA	ERMUA	32'52"	
19 ASIER MARTINEZ DE LAGOS	EIBAR	32'55"	
20 DAVID ARIAS	EIBAR	32'59"	
21 LUIS MIGUEL GARCIA	EIBAR	33'05"	
22 JUANMAN MARTIN	ELGOIBAR	33'14"	
23 HARITZ BARRUTIA	ELGETA	33'32"	
24 JOAKIN NARBAYZA	DEBA	33'37"	
25 INAKI SERRANO	EIBAR	34'58"	
26 JOSE CARLOS GARCIA	ERMUA	35'08"	
27 MIKEL LIZARRALDE	EIBAR	35'22"	
28 ZUHANTZ ALDZABAL	EIBAR	35'29"	
29 PATRI AMUNDARAIN	ZUMAIA	35'38"	1. HESKA+TXULETA
30 INAKI FENEDO	EIBAR	36'11"	
31 JAVI ALDAY	EIBAR	36'34"	
32 GANIX RODRIGUEZ	EIBAR	37'27"	
33 AITOR OARZABAL	EIBAR	37'36"	
34 INIGO GIASOLA	EIBAR	37'57"	
35 JAVI DIEZ	ZALDIBAR	38'22"	
36 ENRIQUE ZIALZETA	EIBAR	39'08"	
37 JOSE ZUBAURRE	ELGOIBAR	39'52"	
38 SANTIAGO OLMO	EIBAR	40'26"	1. HELDUA +70
39 ZIGOR ESNAOLA	SORALUCE	41'31"	
40 CARLOS REY	EIBAR	41'56"	
41 ASIER SERRANO	EIBAR	42'04"	
42 ANTON ALONSO	EIBAR	42'16"	
43 MARIA AMUNDARAIN	ZUMAIA	42'23"	2. HESKA
44 JOSEAN URKIA	EIBAR	43'14"	



ARGAZIAK: AITOR ZABALA



Asier Azkarate bergararra nagusitu zen Arrateko Hiru-Txirlo Bola Txapelketan

Arrate Egunean egon zen euriaren ondorioz, eta hango bolatokiak aterperik ez duenez, ezin izan zen Arrateko Hiru-Txirlo Bola Txapelketa lehiatu. Egun batzuk atzeratu zuten txapelketa eta joan den zapatuan egin zen Asola Berrin.

Asier Azkarate bergararra izan zen nagusi zapatuko tiraldian, zortzi txirlorekin. Bigarren postua Mateo Guenaga markinarrarentzat izan zen (bost txirlorekin), hirugar-

rren Pablo Davila eibartarra geratu zen bost txirlorekin eta 4. postuan beste eibartar bat, Gari Rodriguez (lau txirlorekin).

Enara Montiel Aramaion

Domekan, bestalde, Aramaion egin zen tiraldia Ibabe Andra Mari kofradiako jaietan eta, bertan, Asola Berri taldeko Enara Montiel eibartarra egon zen parte hartzen, hirugarren postua eskuratuz.

Herri Txikiak multzoaren irteera hilaren 27an

Irailaren 27an, Herri Txikiak arloaren mendi-irteera berria egingo dute Klub Deportibokoek Berastegi eta Lizartza lotuz, Lagarte (811 metro) eta Erroizpe (804 metro) igarota.



Urbat Urkotronik bikain Lloret-eko txapelketan

Urbat Urkotronik "25 urteko historian orrialde eder bat idatzi du", diote klubetik. Asteburuan Lloret-eko (Katalunia) txapelketan izan da beste 10 talde gehiagorekin, eta 3. postuan amaitu du, lau garaipen eta porrot bakarrarekin. Txapelketako partiduetan, Badiaren aurka 11-2 irabazi zuen, Premiaren aurka 12-9, Montjuic B-ren kontra 6-4 eta Manresaren aurka 10-8. Porrota Hortaren aurka jasan zuen, 11-4.



Bar Maren da Futbol Zaletuaren lehen liderra

Joan den asteburuan hasi zen Futbol Zaletuen liga eta golak ez ziren falta izan. Bar Maren izan da garaile handiena lehen jardunaldi horretan, 7-1 irabazi baitzion Baserriri.

Lehen hiru puntuak eskuratuta, eta gol-averagea alde, sailkapenaren lehen postuan dago Bar Maren, baina puntu berekin ditu Xania Taberna, Garajes Garcia eta Malape taberna, garaile izan zirelako euren partiduetan.

Hurrengo jardunaldia bihar eta etzi jokatu da, lehia biziarekin. Adibidez, liga ondo hasi duten Garajes Garcia eta Bar Maren arituko dira nor baino nor, domekan, 10:30ean. Gainerako neurketak hauek izango dira: Adahi Etxegi - Xania Taberna, Limpiezas Rueda - Malape Taberna eta Bergara Pneumatikoak - Kalaka Buenos Aires.



Bertso-saio elektronikoa aurkeztuko dute urriaren 3an

Lanku Kultur Zerbitzuen eta Hankamotzak bertso eskolaren eskutik bertso-saioa egingo da urriaren 3an, barixakuan, 22:00etan Errebal Plazan. Antolatzaileek ohararazi dutenez, berezitasun eta berritasun batzuekin etorriko zaizkigu aurten. Izan ere, 1TZ4L1 3T4 P1ZTU izenburukoa bertso saio elektronikoa izango da, eta ikuskizunaren estreinaldia egiteko Eibar aukeratu dute. Haizea Aizpurua, Haizea Arana, Julio Soto eta Oihana Bartra bertsolariak arituko dira, Manex Pagola eta Libe Goenaga musikariek lagunduta, eta Idoia Anzorandia izango da gai-jartzailea.



Ibon Aranberriren asmodun elementuak Portalean ikusgai

Eibarren aurkeztuko ditu Ibon Aranberriek "Intentional elements/Asmodun elementuak" izeneko argazki-serieak, estreineko. Horrela itxiko du 2016an Eibarko Armagintzaren Museoa egin zuen "Makina eskua da" erakusketarekin hasitako zirkulua. Erakusketa atzo zabaldu zuten, Portalean, eta urriaren 19ra arte egongo da ikusgai.



Gaztetxiak 15 urte bete dituela ospatuko da bihar

Egun osorako egitaraua antolatu dute biharko Eibarko Gaztetxeok, Iparragirre kalean hutsik zegoen Cadenas Iris tailerraren eraikina okupatu zutela 15 urte bete direla ospatzeko egitaraua eguerdian hasiko da, Skabidearen eskutik egingo den autogestioari buruzko laburmetraiaren emanaldiarekin. Jarraian, horri buruzko hitzaldia egingo da. Bertso-bazkariarekin jarraituko dute, 14:30ean. Bertan izango dira Aroa Arrizubieta eta Aitor Bizkarra bertsolariak. Arratsalderako, berriz, karropoteoa antolatu dute, Untzagatik 19:00etan abiatu eta Gaztetxeraino joateko. Eta, gaueko 22:00etatik aurrera, kontzertuak izango dira jaun eta jabe. Lau talde hauek arituko dira zuzenean, bata bestearen atzetik: Zero, Aiama, Lokers (azken orduko aldaketa bat egin behar izan dute, Lepue Zapaldu taldekoak ezin izango direlako joan) eta Bad Sound System. Sarrerak 5 euro balio du eta bertan egongo da erosteko aukera.

Nerabeei zuzendutako bi saio eskainiko dituzte urrian

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria sailaren "Treba nerabeak" egitasmoaren eskutik, 12-16 urteko gazteentzat bi saio egingo dira urrian: "Kuadrillen saltsak" izeneko urriaren 7an izango da, 17:30etik 19:30era Portalean; eta "Ongizate emozionala" izeneko urriaren 8an izango da, ordu eta toki berean. Dohainik dira biak, eta izen-ematea zabalik dago, Udalaren webgunean (formularioak.eibar.eus/eu/trebanerabeak2025). Informazio gehiagorako: gipuzkoangazte.eus/treba.





Arrate Kultur Elkartearen irailerako eskaintza prest

Ikasturte berria hasteko kultur eskaintza kaleratu du Arrate Kultur Elkartek. Aurreko ikasturtean bezala, honetan ere euskal kantu tradizionalak ikasteko saio irekiak egingo dira eta, horien xehetasunak zehazteko, bilera egingo da irailaren 23an, martitzena, 19:00etan Kulturaleko lokaletan. Bestalde, bazkideek urtero egiten duten erakusketa irailaren 26an zabalduko dute, eta bakoitzak gehienez bi lan (oso handiak ez badira) aurkeztu ahal izango dituela gogorarazi dute antolatzaileek. Urriaren 12ra arte egongo da ikusgai, Topalekun, eta montajea irailaren 24an (eguztena) egingo da, 10:00etan.



Urriaren 14an aurkeztuko dute “Txillarreko sukaldaria”

Edurne San Martinek eta Asier Ibaibarriagak “Txillarreko sukaldaria” izenburuko liburua eta dokumentala egin berri dituzte, Elgoibarko Txillarre baserriko Pello Rubio oinarri hartuta. Egileek zuzendutako elkarrizketan, Jesus Egigurenek eta Arnaldo Otegi bere baserrian egindako bilera haiek nolakoak izan ziren azaltzen du Rubiok. Urriaren 7an egingo dute aurkezpena, Donostiko Elkar dendan, eta Eibarren urriaren 14an aurkeztuko dute beraien lana, 18:30ean Portalean.



Eibarko Musika Bandaren kontzertua gaur 20:00etan

Gaur 20:00etan emango du denboraldiko lehen kontzertua Eibarko Musika Bandak, Toribio Etxebarria kalean. Coliseoko emanaldiekin hasi aurretik, kalean bi emanaldi egingo dituzte, musika herritarrei gerturatzeko asmoz. Kontzertua barixaku iluntzean izanik, momentu horretarako aproposa den errepertorioa prestatu du Andoni Vazquezek zuzentzen duen bandak. Oraingoan, ostera, bera ez da egongo, eta Bixen Ibarrondo arituko da zuzendari lanetan. Honako piezak joko dituzte: Ilargia (Ken Zazpi), Firework (Katy Perry), Wind Of Change (Scorpions), Sarri Sarri (Kortatu), Highway To Hell (AC/DC) eta The Best Of Village People.

Irailaren 28ra arte luzatu dute Elisabet Egurenen erakusketa

Aurreko asteburuan zabaldu zuten Untzaga gizar-te zentroan Elisabet Eguren eibartarraren pintura erakusketa eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, iragarrita zegoena baino astebete gehiago, irailaren 28ra arte egongo da ikusgai. Astegunetan 19:00etatik 21:00etara zabalduko dute, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Jon Plazaolaren bakarrizketa

Jon Plazaolak “Tu-Tum, Platz!” umorezko ikuskizun berria aurkeztuko du irailaren 27an (barixakua), 20:30ean Uni Eibar-Ermua antzokian. Komedia Fest 2025 jaialdiaren euskarazko emanaldi bakarra izango da, eta sarrerak 19 euro balio du.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

				4			
	2	5		3			8
4	9						3
			2		7	3	9
		7	8	3	1		
2	3	1		5			
6						8	5
5			8	3	9		
			1				


3	4	8	1	5	5	8	7	6
5	7	2	8	4	2	2	4	1
1	6	3	9	8	7	2	4	5
9	8	5	3	7	7	3	1	6
4	9	8	5	8	5	6	1	9
2	3	1	7	6	5	3	1	4
6	9	8	4	3	1	7	2	5
8	5	4	2	9	1	7	3	6
4	6	9	5	1	8	2	7	3
1	2	5	1	8	2	7	3	6
7	8	3	6	7	4	5	1	9

s
u
d
o
k
u
a

5	7	1	8	6	2	9	4	3
9	8	6	3	1	4	5	2	7
3	2	4	7	5	9	1	6	8
7	3	2	4	8	1	6	5	9
4	6	5	9	6	9	5	3	7
1	6	8	2	2	6	5	3	7
8	1	7	9	4	6	2	3	5
2	5	3	1	7	8	4	9	6
6	4	9	5	2	3	7	8	1

	4			3			
		3	1	7			6
8		7		4		3	
	6				3		4
			6	7			
7		2				5	
	2			5	1		8
9			1	4	5		
		8				4	

AURKITU ERTZEAN DAUDEN OBJEKTUAK



Irailak 19/25

BARIXAKUA 19

AURKEZPEN JAIA

18:00 Eskola Kirola aurkezteko jaia. Umeentzako kirol-txokoak, jolas ezberdinekin. Bilera-informatiboa, gurasoekin. Errebal Plazia.

MUSIKA

20:00 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalea.

ZAPATUA 20

MUGIKORTASUNAREN ASTEA

10:00 / 14:00 Bizikleten eta mugikortasun jasagarriarekin lotutako objektuen bigarren eskuko azoka. Eibarko Klub Deportiboak bizikleten konponketa tailerra eskainiko du (azokaren aldamenean); eta, arratsaldean, haurrei zuzendutako bide-hezkuntza zirkuitua eta ginkana egingo dira. Untzaga.



GAZTETXIAK 15 URTE

12:00 Autogestioari buruzko laburmetraia eta hitzaldia, Skabidearen eskutik. **14:30** Bertso-bazkaria: Aroa Arrizubieta eta Aitor Bizkarrak (12 euro). **19:00** Karropoteo, Untzagatik Gaztetxera. **22:00** Kontzertuak: Zero, Aiama, Lepue Zapaldu eta Bad Sound (5 euro). Eibarko Gaztetxia.



BIEN APARECIDA JAIK

12:00 / 16:00 Kantabriako produktuen dastaketa. Jardifietako tabernan eta Ipuruako bolatokian. **17:00** Igel eta toka jokoak bazkideentzat. **20:30** Bazkide eta lagunentzat piskolabisa. Ipuruako bolatokia.

DOMEKA 21

ARRATE IZENEN KOEN JAIA

12:30 Arrate deitzen diren emakumeak elkartuko dira, argazkia egin eta beraien jaia ospatzeko. Arrate (elizaren atarian).

MARTITZENA 23

BERBETAN JAIA

17:30 / 19:00 Berbetan Jaia. Disko Arima Musika Festa.. Untzaga.



BILERA IREKIA

19:00 Euskal kantu tradizionalen saio irekiak zehazteko. Arrate Kultur Elkartea.



BILERA IREKIA

19:00 Pertsona Nagusien Eskubideen Aldeko Egunean (urriak 4) Eibarren egingo den manifestazioari buruzko informazioa emateko. Untzaga gizarte zentroa.

EGUENA 25

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuetxea.

ERAKUSKETAK

Irailaren 18tik urriaren

19ra arte

"Eskala eta zatiak" (Javier Balda) eta "Asmodun elementuak" (Ibon Aranberri). Portalea.

Irailaren 28ra arte

Eli Egurenen margolanak. Untzaga gizarte zentroa.

Eskualdeko Agenda

MENDARO

Gararock Fest 2025

20an (ZAPATUA)

17:30etik aurrera,

Garagartzako Plazan hainbat doako kontzertu eskainiko dira:

- Arima Soul Bobbi
- Relac
- Silitia
- Pinpilinussies
- Ezezez
- Los Chicos



ZINEA COLISEO



“Jones batzuetan”
 DRAMA
 2025/Espainia/80’
 Zuzendaria: Sara Fantova
 Aktoreak: Sara Fantova, Nuria
 Dunjó, Nuria Martín Esteban
Familia/ Gaixotasuna
Homosexualitatea

- 1 ARETOA**
- **20an:** 17:00 (VOSE)
 - **21ean:** 17:00 (VOSE)
- ANTZOKIA**
- **20an:** 19:45 (VOSE), 22:30
 - **21ean:** 20:00 (VOSE)
 - **22an:** 19:30 (VOSE)



“Amor en cuatro letras”
 DRAMA
 2024/Erresuma Batua/125’
 Zuzendaria: Polly Steele
 Aktoreak: Pierce Brosnan,
 Helena Bonham, Gabriel Byrne
Amodiozko drama

- 1 ARETOA**
- **20an:** 19:45, 22:30
 - **21ean:** 20:00
 - **22an:** 19:30



“Mi postre favorito”
 DRAMA. ERROMANTZEA.
 KOMEDIA
 2024/Iran/97’
 Zuzendaria: Maryam
 Moghadam, Behtash Sanaeeha
 Aktoreak: Lili Farhadpour,
 Esmaeel Mehrabi, Mohammad
 Heidari
Zahartzaroa/Heldutasuna

- 2 ARETOA**
- **20an:** 17:00, 19:45, 22:30
 - **21ean:** 17:00, 20:00
 - **22an:** 19:30



“Heidi, katamotzaren erreskatea”
 UMEENTZAKO
 2025/Alemania, Belgika eta
 Espainia/80’
 Zuzendaria: Tobias Schwarz,
 Aizea Roca
Abentura

- ANTZOKIA**
- **20an:** 17:00
 - **21ean:** 17:00

EZ GERATU GIDATIK KANPO!

688 62 15 35
 publizitatea@etakitto.eus

Jesus M^a “Ketxu” Iraola Zubizarreta

2. URTEURRENA
 2023/09/17

Zure irribarre eta kantuek gure bihotzetan bizirik dihardute. Asko maite zaitxugu.

- ETXEKOAK -

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!-n**. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MARTI!**
Eguaztenian 4 urte egin zenduaz.. Patxo potolo bat famelixaren eta, batez be, Maulen partez.



Zorionak **ELENE!**
Gaur 6 urte betetzen dozuz!! Musu potolo bat danon partez.



Zorionak **MALEN, politte!** Urriak 5ian, 4 urtetxo! Segi oin arte bezain alai eta jator! Julen, ama eta aita. Asko maite zaitugu!



Zorionak **NOA!**
Bihar 6 urte beteko ditzuzu eta. Musu potolo bat famelixa eta, batez be, Luka, Gaizka eta Alaitzen partez



Zorionak **IRENE!**
Bixar, irailak 20, 7 urte betetzen ditzuzu eta. Asko maite zaitugu!



Zorionak **NIKO!**
Gaur 2 urtetxo betetzen ditzuzu, Musu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak **IZAR!**
Irailak 16xan 5 urte egin ditzuzu eta. Famelixa guztixaren eta, batez be, Ionen partez.



Zorionak **MALEN!**
Bixar 10 urte beteko ditzuzu, neska haundi. Musu haundi bat famelixaren partez.



Javier Aguirre Manzanedo

2025/09/11

MILESKER une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi.

- ETXEOAK -



FUNEUSKADI

Donostia - Agurtza



FUNEARIA MUGICA

Funeuskadi



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Oraola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Kixilion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marques de Valdeispina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bibe · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
Atiko txikia, espazio baka- rrekoa, alokatzen da Eibarko erdialdean urritik aurrera. Igo- gailuarekin. Deitu 15:00etatik aurrera. Tel. 686829613.
2. MOTORRA
2.1. Salgai
Honda cb600f (Hornet) moto- rra salgai. 600ekoa den arren 35 kwra mugatuta dago. 1999koa, 69.000km. Egoera ezinhobeana eta ITV egunean. 2.000 euro. 688857786. Jon.
3. LOKALA
3.1. Salgai
Garaje itxia salgai SanPion. 25 m2. Prezioa adosteko. 688 84 72 37 / 656 75 64 70
Elikagai-denda traspasatzen da Urki auzoan, gaixotasuna- gatik ezin baita atenditu. 30 urte daramatza dendak au- zoan eta erreformatuta dago, hasteko moduan. 655026699.
4. LANA
4.1. Lan bila
Mutila eskaintzen da garbika- ta lanetarako edota nagusien zaintzarako. Asteburuetan edota orduka. Baserriko lanak egiteko ere. 635 94 46 02
Emakumea eskaintzen da per- tsonen zaintzarako, Interna moduan. Esperientziaduna eta erreferentziarik. 667742118.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Aste- buruetan. Ziurtagiriarekin.. 642757640 (Angela).
Neska eskaintzen da pertso- ne-

kin, tabernan edo garbiketa la- nak egiteko (titulazioarekin). 633101852
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko orduka. Titula- zioarekin eta esperientziare- kin. 667070292
Emakume euskalduna eskain- tzen da, arratsaldez, umeak edo nagusiak zaintzeko. 665733162.
Emakumea eskaintzen da nagusien zaintza lanetarako, esperientzia eta soziosanitario ziurtagiriarekin. 638 41 31 58
Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintze- ko eta etxeko lanak egiteko. 672827386.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurta- giarekin). Erreferentziarik. 613287661.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 631418130. Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 602040399. Veronica.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta gar- biketa lanetarako. Interna. 687408348.
Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintze- ko. 672965658
5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikene-ko irakasle tituluduna. basseak@ yahoo.es 652217737.
LH, DBH eta Batxilergoko kla- se partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.

Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko auke- ra. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
6.1. salgai
Gurpildun aulkirako motorra edota ailkia bera ere salgai. 619350803 (Arrate)
Butaka-relax elektrikoa salgai. Nahiko berria, marroia, antez- koa, ukitu oso leuna. Oso ego- kia mugikortasuna mugatua dutenentzat. 250 euro. 666 982 621 jarriand@hotmail.com
6.2. Eman
Urtebeteko txakur emea emango genuke, ezin dugula- ko zaindu. Spaniel bretai- niar nahastutako arrazakoa. Txertatuta eta txiparekin. 686540051.
Bi urteko txakurra opari- tzen dut. Mastin arrazakoa.. 696655908.
6.3. Aurkitu
Arrateko bidean eskumuturre- koa aurkitu dut. Zurea bada, deitu 658714437 telefonora. 686540051.
6.4. Bestelakoak
Baserria erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 688 642 761. Asier.



●●● eta kitto!

J A I A

IRAILAK 27

UNTZAGA

PLAZAN

12:00-15:00

18:30-20:00

ONDOREN

**“ Latuna
bando txaranga”**

**2
0
2
5**

**DASTATU GUREKIN,
DASTATU EUSKARAZ**

Kiaren Gama Hibridoa.

Eskaintza bereziak irailan bakarrik.



Movement that inspires

Kia Stonic

18.050 €* -tik aurrera

Finantzatuz

Kiaren Gama Hibridoa mundu bakoitzeko onena nahi dutenentzat diseinatuta dago. Gure hibridoekin, ez duzu aukeratu beharrik, dena izan dezakezu. Gozatu abantaila hauetaz irailan eskaintzen ditugun baldintza bereziekin eta ezagutu oreka perfektua bidaia bakoitzean.



Apalategi, 1 EIBAR

943 70 70 33

gruponaiacar.com

WLTP CO₂ isurketa konbinatuak (g/km): 100-159. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,4-7. PHEV: CO₂ isuri konbinatu hauek, WLTP (g/km): 18-28. WLTP kontsumo konbinatu hauek zerbaita (l/100km): 0,8-1,2. EV: CO₂ isuriak WLTP (g/km): 0. WLTP kontsumo konbinatua (kWh/100 km): 16,2. * PPG Kia Stonic 1.0 T-GDI MHEV 100CV (berak, garraioa eta sustapen ekintzak barne) Ez dira sartzen gestioari eta matrikulazioari gasteak. Erabilitako ibilgailu bat entregatu eta Banco Cetelem SA/urekin Flexiplan kanpainaren bidez finantzatzen duten bezero partikularrei aplikatu behar diren eskaintza. Gurekin zerbaita 10.000 €-tik gorakoa edo finantzaketa-kontratua amaitzean ibilgailuaren etorkizuneko balio bermatua baino handiagoa izango da, eta gurekin epea 36 hilabetea izango da. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza eskaintza batzuekin, eta 2025/09/30era arte balio du.

